BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

106

EBAZPENA, 2013ko irailaren 10ekoa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Francisco López Paz idazlearen «Zahartze Osasuntsua: erreferenteak eta baliabideak» liburua euskaraz argitaratzeko Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitateari emandako diru-laguntzaren zenbatekoa aldatzeko dena.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko maiatzaren 25eko Aginduaren bidez, goi-mailako irakaskuntzarako euskarazko liburuak argitaratzeko laguntzak erregulatzeko arauak onartu, eta 2010eko ekitaldian eskaerak aurkezteko deialdia egiten da (2010eko ekainaren 21eko EHAA, 116. zk.).

Bigarrena.– Deialdi hori Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen 2010eko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez ebatzi zen. Deustuko Unibertsitateari emandako laguntzen artean, 3.021 euroko zenbateko bat dago, Juan Francisco López Paz idazlearen «Zahartze Osasuntsua: erreferenteak eta baliabideak» liburua euskaraz argitaratzeko gastuak finantzatzeko emana.

Hirugarrena.– Liburu hori «Zahartze osasungarria: erreferenteak eta baliabideak» (ISBN 978-84-15759-05-8) izenburupean euskaraz argitaratu ondoren, erakunde onuradunak aurkeztu ditu eskatutako agiriak eta eragindako gastuen fakturak. Argitalpenagatik aurkeztutako fakturak, guztira, 2.804,84 eurokoak dira, BEZik gabe. Horrenbestez, zenbateko hori txikiagoa da 2010eko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez emandako diru-laguntza baino, 216,16 euro txikiagoa, zehazki.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Deialdi honen arauen arabera, laguntza horiek liburuak argitaratzeak eragindako gastu mekanikoak konpentsatzera bideratuta daude, eta, hala badagokio, itzulpen-gastuak finantzatzera.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuz onartu zenak, 49.10 artikuluan hau dio, hitzez hitz:

«Diru-laguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandako diru-laguntza edo laguntzak batuta, edo helburu bera lortzeko diren beste sarrera edo baliabide batzuk ere batuta (azken hori arauetan hala zehazten baldin bada), ez da inoiz ere onuradunak aurrera eraman nahi duen jardueraren kostua baino edo hasieran jarri zen helburuaren kostua baino handiagoa izango».

Hirugarrena.– 2010eko maiatzaren 25eko Aginduaren 25. artikuluan ezartzen denez, gainfinantzaketa gertatuz gero, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak, Unibertsitate Zuzendaritzaren proposamenez, likidazio-ebazpena emango du, emandako laguntzaren zenbatekoa doitze aldera.

Horregatik guztiagatik, aipatutako arauei eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenei jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2010eko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez Deustuko Unibertsitateari emandako laguntzaren zenbatekoa aldatzea. Laguntza horren helburua zen argitara ematea Juan Francisco López Paz idazlearen «Zahartze Osasuntsua: erreferenteak eta baliabideak» liburua.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan aipatutako laguntza 2.804,84 euroan ezartzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. eta 114. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 10a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ.